

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MANZANOSKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen tasa ordaindu behar dutenen 2024ko bigarren seihilekoko errolda, eta ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko jartzea

Etxeak edateko urez hornitzearen tasa ordaindu behar dutenen 2024ko bigarren seihilekoko errolda egin, eta 2025eko otsailaren 10ean onetsi zen. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodun jarriko da jendaurrean errolda hori, interesa dutenek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesdunek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorri Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorak 98. artikuluan 3. apartatuan xedatutakoarekin; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko lehendakariari aurkeztu behar zaizkio, aurretik adierazi diren epean barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2025eko martxoaren 17an hasi eta maiatzaren 19an bukatuko da, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2025eko apirilaren 3an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Administrazio batzarrak kudeatuko du zordunketa zuzenean ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez duten zergadunei etxera bidaliko zaie zor duten zenbatekoa ordaintzeko behar duten agiria.

Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Manzanos, 2025eko otsailaren 12a

Lehendakaria

FRANCISCO JAVIER ARGOTE URCELAI